

ENTZUMENA

Ekintza komunikatiboa: Jatorrizko hiztunen kontaktak ulertzea, solaskidea tokian tokiko hizkeran ari bada ere.

Umetan ezagututako eskola

Elkarrizketatzailea: Nola gogoratzen duzu zure ume-garaitan herria?

Joxe: Bai, beno, gaurtik begiratuta zeharo alderantziz, ez? Gure garaian eskolan hasten ginen, uste dut, bada, sei-zazpi urterekin edo horrela, gertukook; baserrikoak, bada, geroago. Garai hartan, hemen, San Martinen, eskola nazionalak zeuden: mutilen gela bat eta neskena beste bat. Dena erdaraz ematen zen eta guk ez genekien tutik ere, eta orduan, bada, hor izaten genuen berealdiko oztopoa. Ni akordatzen naiz komunera joateko nola eskatzen genion baimena maisuari: “has usté favor de mi erretrete” esan ohi genion. Ni geroztik egon naiz pentsatzen, klaro, guk esaten genuen zerbait, baina: “haga usted el favor de dejarme ir al retrete” izango zen esan behar genuena, baina guk ez genekien zer esaten genuen eta horrela.

Elkarrizketatzailea: Eta denok hori esaten zenuten?

Joxe: Ez, nik behintzat bai. Ez dakit besteek zer esango zuten-edo, baina gero, bada, hori, nola ez genuen ulertzen, bada, egurra izaten zen, hautsi batean, edozein gauzagatik, bada, belauniko jarri eta... edo liburu bi eskutan edo eskua hola jarri eta erregelarekin jo-edo. Tipo horretako pedagogia zen garai hartan, ez? Eta esan ohi zuten, bada, erdaraz, bada: “La letra con sangre entra” eta holako gorabeherak, ez? Beno.

Elkarrizketatzailea: Erabiltzen zen esaldi hori.

Joxe: Bai.

Elkarrizketatzailea: “La letra con...”.

Joxe: Bai.

AHOTSAK.COM

Joxe Bikuña Agirre (Ataun)

Erabilerarako baldintzak

Eduki honek *Creative Commons Aitortu-Partekatu* baimena du. Lizentzia librearekin banatzen da, cc-by-sa lizentziapean. Material hau berrargitaratu, kopiatu, erreproduzitu eta banatzea zilegi egiten du; baita eratorritako obrak sortu eta helburu komertzialetarako erabiltzea ere. Egiletza aipatzea beharrezkoa da eta baldintza berean banatu behar da (Aitortu-Partekatu baimenarekin).